



3 ZINEMA

Laugarren Itsaspeko zinema zikloa Manuel Lekuonan

Laugarren urtez antolatu du Danok Kidek, Udala eta Real Sociedad klubaren itsaspeko sailaren laguntzarekin, itsaspeko zinema zikloa Manuel Lekuonan. Asteazkenean egin zuten aurkezpena eta hiru saiotan ikusi ahaliko diren lanen berri eman zuten. Saio guztiak doan izango dira hilaren 9, 16 eta 23an, arratsaldeko 19:30ean.

4-5 ERREPORTAJEA

Hizkuntza, elkarbizitarrako gakoetako bat

Irailetik urtarilerara izan dira ikasturte honetako lehenengo ikastaroak Sexuen elkarbizitarrako emakumeen zentroan. Bertan gehienak gaztelaz eman diren arren, eskura hutsen egin diren bi ikastaro izan dira lehenengoa aldez eta beste bitan sarbidea eman zaio eskurari talde tipologiari erreparratuz. Otsailetik ekainerako eskaintzan ere berdin jokatu nahi du Emakumeen Zentroak, ikastaroetako hizkuntza-praktika herritarren hizkuntza-zaugarrietara egokitzeko asmoz.



Dena prest Inauterietarako!

Hurrengo asteburuan herria ipuin eta komikietako pertsonaiez beteko da



Antolatzaileen eta udal-ordetzarien talde-argazkia. Balkoietan koloretako telak jarri, mozturatu eta batez ere festa hauetan ondo pasa eta gozatzera deitu dituzte herritarrak.

Urtetik urtera Lasarte-Oriako inauterietan indar gehiago hartzen ari dira eta gero eta jende gehiago animatzen da festa hauetan mozturrotzera. Era berean, konpartsek beraien karrozak prestatu dituzte eta desfile koloretsua egingo dute larunbat arratsaldean. Aurtengo egitaraua ere, konpartsa hauen parte hartzearekin antolatu da eta Okendo umorez jantzioko dute otsailaren 14 eta 15ean.

Irailean hasi ziren Udala eta konpartsak bilerak egiten. Urriari inauterietako gaia aukeratzeko herritarren ekarpenak jaso zituzten. Ondoren, azaroran gaia aurkeztu zuten herritarrak arropak aukeratzeko eta karrozak erailkitzen hasi zitezten.

Aurtengoa, iaizko egitarauaren antzekoa izango da eta bi egunetan zehar izango dugu festa herria. Alde batiatik, larunbatean mozturrotzera eguna izango da, konpartsa guztiak kalera aterako dira beraien jantziarik festa geroan desfilatuz. Jakina, musikarik ez da faltako Okendo plazan. Ilandean berriz, eskal inau-

teriatik ospatuko dira kaleetan zehar. Ohiko txantxo jantziak jantzi, dantza egin eta azken orduan Okendon hartza erreko dute.

Berrikuntza bat ere izango du aurtengo festa: Konpartsa lehiaketa. Konpartsa guztien artean aurtengo politena hautatuko dute eta datorren larunbatean egingo duten desfilea karroza horrekin gidatuko du.

Egitarau zabala

Ostegunean emango zaie festei hasiera ikastetxeetan. 15:30ean Sasoetan Musika-festa egingo da eta Eskal Inauteria Garaikoetxean.

19:00etan, Udal Musika-Eskolako kontzertu bufoa eskainiko du Manuel Lekuonan.

Larunbatean, otsailaren 14an, Kalean txarangak erdiguinea girotuko du egudietatik aurrera eta sargardo barrikote-pintxoak izango da Okendo Plazan, mozturroturik agertzen diren guztientzat, Tekila konpartsaen irizkera ekitaldiaz gozatzeko. Osteen, pintxo-potea eta norberak eramanadako janariarekin bazkari herrikoia egingo dute Okendoko karpan, 14:30ean. Gazteklubeko koreografia eta bingorik ere ez da faltako bazkalosteetan.

Arratsaldean, konpartsak Okendon bertan elkartuko dira 16:30ak aldera. Honako konpartsa hauek parte hartuko dute desfilean: Zentro Zibikoa, Zabaleta, Tekila, Naste Borraste, Larramendi, Jalgunea, Ttakun, Intzak Parrandan, eta Zakilli Beldur. Ibilbidea Okendo Plazan

hasiko da eta herriko kale eta auzoetan barrena ibiliko da. Berrikuntza gisa, aurtengoa ere Sasoeta inguruko alaitzea erabaki dute konpartsek. Desfile koloretsu eta umoretsua Okendo Plazan bukatuko da arratsaldeko 19:00ak aldera.

Iluentean, Ohenian elektrotxaranga kalez kale ibiliko da eta gaueko 3:00ak arte makro diskoteka egingo da Okendoko karpan.

Euskal Inauteria

Tradizioa, dantza eta kantua uzartuz, elkarte eta herritarrekin batera, sargardo eta txorizo dastaketari ekinaz hasiko da Eskal Inauterietan festa igandeko eguerdian.

Arratsaldean, txokolata jana egingo da 17:00etan Atsoabarren eta Eskal Inauterietan konpartsa kalez kale ibiliko da Hipodromo etorbidetik jaitsi, Okendo Plazan azken dantzak egin eta hartza erre aurretik.

ADURIZ DE LASARTE S.A

Odolkia- Solomo ontzutua Solomoa baratxuritan

Etzeko txorizoa Tripakiak- Saltxitxak

Txistorra



Basurde burua

Baserri pateaa

BERTAKO FABRIKAZIOA

Loidi Barren kalea 3 • 20160 Lasarte-Oria
Tel.: 943 361278 - 943 361655 - 943 362451

AUKERA PAREGABEA!!

Bideo Lagunak

Etiketresna elektrikoetan adiitua

249€ LED SAMSUNG Smart TV 32"

599€ LED 45 6500 PANASONIC SMART TV 42"

799€ BOSCH HOZKAILU KONBI 1800€

12 ORDAINDU HILABETEAN INTERESK GABE

Neure kabuz



Maider Seguroa
Kontu janean

Badakit ez dela egin behar baina gustatu egiten zait eta aukera dudan gutzietan egiten dut. Eta, ez dezadan nire burua engaina, egiten jarraituko dut. Batetik, gisa honetako bizioak kentzea kostatzen delako eta bestetik, inori kalterik ere ez diodalako egiten. Gustuko dut kontuak jatea. Norbaiten zain bakarrik nagonean belarria zorroztu eta inguruan hziketan ari direnen berriketaldiak idazteko bizio handia da niretzat. Gertatu liteke elkarriketa argi aditzea eta orduan ez dago fantasiarako lekuri baina izaten da baita ere, toki zaratsuan edo distantzia urruegiaren nagoeak zurrumurrua erdizka heltzea. Orduan, entzundako erdiari beste erdia asmatzea jolasa izaten da. Doblole plazerra.

Aste hasieran guraso koadrila bat somatu dut Santa Ageda bezperako prestakizunei buruz hizketan. Alabarentzat Santa eskerako makilarik ez zuela eta ea non eros ote zezakeen galdetu zuen batek eta Eroskin izango zirela erantzun zion parekoak, natural-natural. Baserritar jantziak edo danborrak saltzen badituzte makilak ere izango zirela noski. Konforme geratu zen emakumea eta hala utzi nituden, berrikerian.

Baina ni ez nintzen konforme geratu eta Eroskira deitu nuen egurrezko edo gurra imitatzen duen auskalo-zer-materialatoko makilarik ba ote zuten galdetzeko. Erantzuna ezetokoa izan zen, ez dutela haiek makilarik saltzen. Eta egia esan, lasaitua hartu nuen. Ez bai nuen sekula pentasatu tradiziozko ohitura hauek, zenbaitentzat hain jator, herrikoiki eta gorde beharkeko direnek helburu komertzializko izan dezaketekin. Edo are okerrago, festaren benetako izaeraren jakitun izan gabe eta egutegiak hala agintzen duelako bakarrik, supermerkaturaren garaiakoa erosi eta haurrek totokaten den zirkura bidal litezkeenik.

Zorion agurrak



Nora
Zorionak printzeza!
Muxu asko gurasoen, Mikelen eta Mariaren partetik!



Ane Miren
Zorionak etxeko artista dikiari! Handitzen handitzen...9 muxu potolo denon partez!



Aimar
Zorionak Aimar!
Ondo pasa zure 10.garren urtebetetzean!!! Muxu handia familiaren partetik!



Mikel
Zorionak Txapeldun familia guztiaren partetik. Asko maite zaizugu!



Roke
ZORIONAK pottolo. Ondo pasa zure 12 urteak. Famili osoaren partetik.



Saioa
Zorionak! Oso ondo ospatu zazu zure egun handia, familiaren partetik muxu handi bat!!!



Paula
Zorionak printzeza zure 7. urtebetetzean. Muxu pila bat aita, ama eta Marioren partetik. Asko maite zaizugu!!!



Claudia
Zorionak etxekoien partetik eta bust muxu potolo!

Zorion agurrak bidaltzeko 943 36 68 58, txintxarri@txintxarri.info edo txintxarri.eus web orrialdeko formularioa erabili dezakezue.

Azoka txikia

Higiezinaren Eskaintza

- Etxebizitza alokatzen da Sasoa eta auzoan. 2 logela ditu eta berogailua etxe osoan. Telefonoa: 649 52 67 66
- Etxea alokatzen da erdigunean, Okendo plaza eta Kale Nagusia ematen du eta berrieta dago. Apiriletik aurrera. Saioa 656 75 32 28
- Garaje marra bat alokatzen da Loidibarrenen 10 m2ko trasteroarekin. 100 euro. 677 86 36 42
- Garaje plaza irekia alokatzen dit. Juan XXIII plazan 627 64 94 26
- Bulego batean lan egin nahi nuke Lasarten, espazio konpartituta. Informazio gehiago: 661 45 29 09

Salerosketak

- Estreinatua gabeko ASPES markako bitrozaramika eta labea dituz salgai, 275 eurotan. sukaleasalgai@hotmail.com.

Lan-eskaria

- Garbiketarako, umeak edo agureak zaintzeko prest nago. Edozein ordutegi (interna izan

- etik). Azucena. 669 93 10 26.
- Adinduak, umeak edo garbiketara lanak egiteko prest. Orduka edota interna moduan. Esperientzia eta erreferentziak. 662 27 71 36
- Pertsona nagusiak eta umeak zaintzeko, etxeko lanak egiteko astean zehar, jai egun eta asteberuetan... edozertarako prest. Orduka lan egiteko prest ere. 943 40 40 15 / 606 66 10 48
- Emakume arduratsua eskaintzen da garbiketara lanetarako edota haur eta umeak zaintzeko. Esperientziarekin. 611 30 94 62.
- Etxeko lanak egiteko esperientziadun emakume bat eskaintzen da, etxean sori daitekeen edozein zereginetarako. Curriculum-a eta informazioa emateko prest. 648 63 00 16.
- Sare sozialetan kudeatzeailu tituluduna naiz. Prest nago zure enpresa edo tirlunda kudeatzeko laguntzeko. 605 70 85 15.
- Emakume arduratsua eskaintzen da orduka garbiketara lanak edota helduen zaintzarako etxean zein ospitalean. Haurdun zaitzen ere esperientzia duna. 615 75 56 91.

Heriotzak Jaiotzak

Jaiotzak

- Alexia Fernanda Gamez Hoyes, urtarrilaren 27an.
- Sheila De los Santos Dos Santos, urtarrilaren 29an.
- Maddi Ibeaga Vivas, urtarrilaren 28an.
- Mouhamed Saissi El Hassani, urtarrilaren 20an.

Heriotzak

- Maria Pilar Amasene Izaguirre, urtarrilaren 29an, 85 urte zituela.

Farmazia Goardiak

EGUNEKOAK: 09:00-22:00

Ostirala, 06 Gil, Kale Nagusia 24	943 361529
Larunbata, 07 Gandarias-Urbe, I. de Loyola 9	943 019521
Igandea, 08 Gandarias-Urbe, I. de Loyola 9	943 019521
Astelehena, 09 Acha-Orbea, Hipodromo et. 6	943 363549
Asteartea, 10 Urbistondoa, San Franzisko 1	943 366567
Asteazkena, 11 Gandarias-Urbe, I. de Loyola 9	943 019521
Osteguna, 12 Orue, Jaizkibel plaza 2	943 362652

GAUEKOAK: 22:00-09:00, egunero
Echeveste Elosegi, Elkano 9
Hernani, Tel.: 943 552087

Larrialdi telefonoak

Osasun Zentroa	943 007960
DYA	943 464622
Gurutzte Gornia	943 363953
Udalzainak	943 362442
Eztaiztaria	943 288888
SOS Deiak	112

Udalaren telefonoak

Erregistroa	943 376055
Euskarako Zerbitzua	943 376184
Kinolojia	943 376182
Kulturetxea	943 376181
Gizarte Zerbitzuko	943 376179
CIUB	943 361605
Udal eskualtegia	943 361621
Muntteri AEK	943 372863

Diruz laguntzen duten erakundeak

Babeslea



LASARTE-ORIA
UDALA

Txintxarrik ez du bere gain hartuko iritzi-artikuletan edota irakurleen gutunetan adierazitakoaren erantzukizunik.

Laguntzailea



Argitaratzailea:

Txakun Kultur Elkarteak
Geltoki kalea 4
20160 Lasarte-Oria
943 366 858/943 371 448
G-20407557
Legezko gordailua:
SS513/93
ISSN: 1134-0053
Inprimategia
Zeroa Multimedia, S.A.
Aleak zenbakiko: 7800

txintxarri

Eredakzioa:
Maider Azumendi, Inigo Gonzalez, Ion Altuna E.
txintxarri@txintxarri.info
Publizitatea eta administrazioa:
Aiztza Artola
publizitatea@txakun.com
administrazioa@txakun.com
Laguntzaileak:
Unai Muñoz, Gorka Lasa, Ane Labaka, Malu Armut, Aisler Oñobozko, Jonne M. Hernandez, Jesus Arribe, Piko Aizpitarte, Edu Galardi
Informazioa:
Xabier Amadoz

KULTURA

4. Itsaspeko zinema zikloa

Hiru saio egingo dira Manuel Lekuonan, hilaren 9, 16 eta 23an

Laugarren urtez antolatuta du Danok Kidek, Udala eta Real Sociedad klubaren itsaspeko sailaren laguntzarekin, itsaspeko zinema zikloa Manuel Lekuonan. Asteazkenean egin zuten aurkezpena eta hiru saiotan ikusi ahaliko diren lanen berri eman zuten. Saio guztiak doan izango dira eta 19:30ean.



Asteazkenean egin zuten aurkezpena Manuel Lekuonan.

TXINTXARRI

Danok Kideko Jose Luis Navarro eta Juan Mari Egizabal izan ziren aurkezpenen Real Sociadako Nano Cordovilla eta Udaleko Xabi Goitia eta Boris Nogalesekin. Laugarren urtez itsaspeko zinema zikloa antolatuta duela ekitallean otsailaren 9, 16 eta 23rako Manuel Lekuonan.

Boris Nogalesek aurreko edizioek izandako harrera ona nabarmenduta nahi izan zuten eta aurtengoa, pantaila berriak eragin zuzena izango duela ere aipatu zuten: "Filmak kalitate handian grabatuta daude eta pantaila berriari esker, kalitate onean ikusi ahal izango dira. Audioa ere nabarmen hobetu da". Eremaldia ikusgarriagoa izango dela eta, jendea gerturaztea animatu nahi izan du Kultur alorreko

zinegotziak.

Nano Cordovillak ziklo honen inguruko xehetasunak aipatu zituen. Herreria ekartzeko Donostiako Aquariumeuan egin den itsaspeko nazioarteko zinema jaialdian ikusi ahal izan dira. "Zinemaldi honenkin jarraitzeko arazoak izan ditugu, iaiz fuzio sailetik diru laguntza eman ziguten antolatzaiz jarraitu ahal izateko, izan ere, euren laguntza ematen ziguten haibait entitatek eten egin zuten diru laguntza zikloa". Zailtasun zailtasun, maila altuko lanak ekarri zirela aipatu du Cordovillak.

"Lan bikainak aukeratu ditugu, labor batzuk ikusi ahal izango dira eta jarraian film luzeagoak, etxetik mugitu gabe, bidala zoragarrietan murgiltzeko aukera izango duguru".

Egitarau oparora

Lehenengo egunean, otsailaren 9, "Erraldioen gaua", "Malkoak itsasoan", "Algodre" eta "Bali" lanak ikusiko dira. Otsailaren 16an berriz, "Bidaia Itsasora II" 27 minutuko lana eta Leandro Blancoren "Oparia" ikusiko dira. Saio honetan ere, David Sanchez Carretero herritarren bost minutuko lantxo emanogo da. Honetan Real Sociadako itsaspeko atalake umeekin egiten duen lana islatzen da. Azkenik, otsailaren 23an "Kubako altxor urperatutak" eta "Bizirik irauteko markatutak" lanak ikusi ahaliko dira.

Saioak doan dira eta guztiak 19:30ean hasiko dira. Familia guztiari zuzendutako lanak dira eta herritarrek animatu nahi izan zituzten emaldi hauetara gerturatzeko.

PARTE-HARTZEA

Tximistarretako prozesua larunbat honetan amaituko da

Alaitz Mendizabal Parte Hartze zinegotziak adierazi duenez, "luzea bezain polita" izan da Tximistarretako prozesua, "herritarrek batera" egindakoa. Larunbat honetan amaituko da.

Prozesu "aberasgarri" horri "amaiera txukuna" emateko ekitaldia antolatuta dira birkako, 11:00etan hasita. BM supermerkatuaren ondoan egin dute hitzordua. Enbor bat jarriko da herritarrek euren azarna utzi dezaten bertan eta umeen jokoak margotu ahaliko dituzte guraz, heldu, gazte zein jubituek. Eguraldi hotzari aurre egiteko salda beroa eta pintxo batzuk ere prestatuko dituzte ekimenen antolatzaileek.

POLITIKA

Podemos-Ahal Duguren ekitaldia bihar

Herriko Podemos-Ahal Duguk ekitaldia egingo du bihar Villa Mirentxun, 11:00etan hasita. Datoren udal hauteskundeetan aurkeztuko den "Lasarte-Oriak Ahal Du" taldearen nondik norakoak azalduko dituzte. "Elkarrekin lan-egutegia finkatu nahi dugu, gure ildo politikoa aurkeztuko dugu eta zerrendak osatzeko moduz arituko gara", adierazi duete. Herritarrei dei egingo diete bertan parte-hartzera.

AISIA

Jordaniari buruzko diaporama eskaini zuten Sonia Rodriguezek Jalgin

Jordaniara, Ekialde Hurbileran bidaiatu zuten asteazken gauean Jalgi taberna hurbildu ziren herritarrek. Otsaileko asteazkenean egingo diren diaporama zikloko lehen eskaini zuten Sonia Rodriguez herritarak. "Jordania bizikletaz eta eskalazten, Argazki sorta batez lagunduta, Sónik Jordanian bizitakoak kontatu zituzten haibait herritarren aurrean: bertako basamortuetako itsaslana, tenperatura altuak, beharrezko eljioak hala behartuta aropea luzearekin ibili beharra, gastronomi... Aspertzeko betarik ez zuten izan Jalgin ziren ikusleek, eta ziur batek baino gehiagok kontuan izango duela asteazkenean ikusitakoa, udara honetako oprorak antolatzerako orduan.

Otsaileko asteazken guztietan antolatuko dira gisa honetako saioak Jalgi tabernan, 21:30ean. Josu Agirretxek hartuko du lekukoa datoren astean, eta Marokoko egonaldian bizitako esperientziak hitz egingo du, "Atlas ezezaguna 10 egunetan" izeneko diaporaman.



Plaza irekia eginda, udal hauteskundeetako langetaren 3. fasea hasiko du EH Bilduk

Udal hauteskundeetarako programa eta hautagai-zerrenda osatuko ditu EH Bilduk 3. fasean. Hori baino lehen, orain arte egindako bi faseetako xehetasun eta datuak aurkeztu zuten asteazken, Manuel Lekuonako hiztaldian aretoan egindako plaza irekia. 2011n hasitako agintaldien balorazioa eta etorkizuneko Lasarte-Oriako eronkak azaltzeko zuzituzten.



Irudian, asteaztereko plaza irekia.

dira agintaldian ongien baloratutako alorrak. Garbiketa, instalazioak ez hobetzea eta kale eta azuoen egoera izan dira gutxien baloratuenak.

Etorkizuneko erroka asko zehaztu ditu EH Bilduk: ekonomikoki okerrera daudenei diru-laguntzak ematea, etxebizitzaren plan berri bat egitea alokairu sozialean oinarrituta, garbiketa zerbitzuak indartzea, "eskola proiektu" bat diseinatzea eragile guztiek eta Udalaren berdinatasun diagnostikoa jarraipena, besteak beste.

Pablo Barrio alkateak azaldu zuten agintaldien balorazioaren xehetasunak. "Balorazio positiboa" egingen du alderdiak: "Herrira nabarmen aldatu da, gobernatzeko ereduak aldatu baitza azken urteetan. Dena den, akatsak ere izan ditugu eta haibait arlo hobetu behar ditugu".

Parte-hartzea sustatzeko, herritarrekiko gertutasuna, elkarlana eta herri giroa izan

EAJren hiztaldia zikloa otsailean

Otsailaren 12tik 19ra Lasarte-Oriako EAJk herria "hazi arazi eta gartzetako" hiztaldia zikloa antolatuko du. Kirol garapena, baka eta bizikidetzeta eta industria eta enplegua gaiak hautatu dituzte hausnarketarako, Lasarte-Oriaren orainaren eta etorkizunaren arteko "estrategikoak" direlakoan. Hiztaldia guztiak Villa Mirentxun egingo dira, aratsaldeko 19:30ean.

Kirol garapenaren hiztaldia zabalduko du astea. Jose Manuel Gonzalez Aramendi kirol medikuntza eta kirurgian adituak eta Laurent Irizusta Aviron Bayonnais kirol taldeko presidentek kirolak herri garapenean duen eraginari buruz hitz egingo dute otsailaren 12an, ostegunean.

Otsailaren 17an, astearte, Maribel Vaquero EAJren legebiltzarrieda eta Legebiltzarreko Giza Eskubideen Batzordeko presidentek



Juan Mari Alkorta, Jon Antxorodoki, Inma San Sebastián, Estxu Alkorta eta Boris Nogales.

bakea eta bizikidetzeta izango dituzte. Azkenik, otsailaren 19an, Arantxa Pita Ekomoniaren Garapenaren eta Lehiakortasunaren sailburuak Industria eta enpleguari buruz hitz egingo du.

Lan-dinamika

Azken bost hilabeteetan herritarrek eta gizarte eragileekin harremanetan jarri da EAJ Lasarte-Oriaren etorkizuneko "diseinu estrategikoa"

eginen lagunduko duten proposamenak jaso, partekatu eta landuzko.

Egindako bilereetatik eratorritako ekarpen eta irizki guztiak EAJ lantzen ari den "Lasarte-Oria berriak" proiektuan jasoko dituztela esan dute. Zirriborroa osatu ostean, berriro ere herritarrei eta eragile guztiei aurkeztuko dizkiete, "kontrasterako", behin betiko hauteskunde-programa eta konpromisoak idatzi aurretik.



Hizkuntza, elkarbizitzarako gakoetako bat

Irailetik urtarerara izan dira ikasturte honetako lehenengo ikastaroak Sexuen elkarbizitzarako emakumeen zentroan. Bertan gehienak gaztelaz eman diren arren, euskara hutsean egin diren bi ikastaro izan dira lehenengo aldiz eta beste bitan sarbidea eman zaio euskarari talde tipologiari erreparatuz. Otsailetik ekainerako eskaintzan ere berdin jokatu nahi da, ikastaroetako hizkuntza-praktika herritarren hizkuntza-ezaugarrietara egokitzeko asmoz.

Udalak onartutako euskara sustatzeko planari jarraituz udalak eskaintzen dituen zerbitzuetako erabiltzaileei eman zaie hizkuntza aukera. Maria Salsamendi da Sexuen elkarbizitzarako emakumeen zentroko arduraduna eta bere ustetan "udalaren zerbitzu bat gehiago izanda, zentroak egiten duen ikastaroetan hizkuntzen erabilera kudeatze-erakorkoan, herritarren hizkuntza errealitate kontuan izan behar da eta haren araberako gestioa egin".

Mariak aipatu bezala ikasturte honetan lehenengo aldiz izan da hau indarrean jarri dutela "egun emakume zentroan dagoen langile taldea berria da eta ikastaro eskaintza desberdina egin den bezala, Udalan dagoen hizkuntza irizpidea jarraitu dugu gure eskaintza egite-erakora ere".

Naturaltasunez jokatu behar dela azpimarratzen du Maria Salsamendik: "Uste baino gaitasun gehiago du jendeak euskara ulertzeko. Ikastaroetan galdeketa egite-erakora egia da, jendeak ikastaro bat euskara hutsean jarraitzeko bere euskara maila nahikoa ez dela azaltzen duela. Era berean, ikastaroan bi hizkuntzak erabiltzea gaitasun horretaz eta horrek hizkuntzen tratamenduan ematen dituen aukeraz jabe-



tzeko ere balio duela aipatzen dute".

Bi ikastaro euskaraz

Parte hartzaileen arabera egiten dira ikastaroak hizkuntza batean edo bestean: "Kasu honetan bi ikastaro euskara hutsean egin ziren aurreko lau hilabetekoan eta beste bitan sarbidea eman zitzaion euskarari".

Hala ere, badago zailtasun bat, eta hori da hain zuzen, "beti aditu elebidunak" ekarri behar direla. "Hala ere, herritarren eskaerari erantzun behar diogu zerbitzu garen neurrian eta materiala euskaraz bilatu edo sortu behar bada, egin beharrek lana dela iruditzen zait". Hizkuntza hautatzeko aukera balio erantsi bat da Mariaren ustetan.

Esperientzia positiboa

Pili Bermejo herritarra izan da euskara hutsean egin den ikastaro horietako batean partaidea. Oso esperientzia ona izan da berarentzat eta aurrera pausoa dela esatean bat dator zentroko arduradunarekin.

"Herritarren aldetik euskarazko eskaintza baten eskaera dago eta udalak hau bermatu egin behar duela iruditzen zait, eskaintzen dituen zerbitzu guztietan".

"Oso interesgarria iruditzen zait Udalak egitasmo hau garatzea eta aukera ematea; bertizailera ere bada".

Ikastaroaren arabera zailtasunak izan daitezke hizkuntzaren ulermenarekin. "Batuzetan hiztegiak aberatsago behar du izan eta ulermen maila altuago bat eskatzen da. Beste ikastaro batuzetan hizkuntza arruntagoa da eta ia denek ulertzeko modukoa. Beldurra ere badago eta erosen sentitzen den hizkuntzetan egiten dituzten ikastaroak jendeak. Hori gaingitu egin behar da".

"Bi ikastaro horietan gertatu da hartzaile guztiak eskaldunak zirela eta guretzat horrek ere egokitze bat ekarri du material aldetik".

Bermejoren hitzetan, "gehiengoak ikastaroa euskaraz eskatzen badu, horrela izatea bermatu dadila nahi nuke. Egin ezean, behintzat,

ikastaroa hastean adieraztea zein hizkuntzetan emango den eta zergatik. Nire ikuspegiatik, eskaera dagoenean behintzat, gehiengoak kontuan hartu beharko litzateke eta ikastaroa euskaraz soilik eman. Galdeketa jartzen duena kontutan hartzea espero dugu herritarrok eta galdeketa zaigunez, zerbaitearako izango dela pentsatzen dugu".

Gaitasunaz hausnartzea

Maria Salsamendik azaldu duenez, ikastaro batera apuntatzeko "bi fase" daude: "Lehenengo inskripzio bat egiten da eta ondoren ikusten da zenbat leku dagoen. Lekua izanez gero, matrikula formalizatu behar da eta matrikula orria betetzeko garaian, bertan galdeketa zaio herritarri ea ikastaro hori euskaraz jarraitzeko gai den".

"Taldeak osatzeko orduan, nahi dugu erabiltzaileek gogoeta egitea, euren hizkuntza gaitasunaz eta eta horrek hizkuntzak kudeatze-erakora ematen dituen aukerez. Orria betetzerako orduan egin daitekeen ariketa on bat dela iruditzen zait".

Biek herritarrek animatzen dituzte pausua eman eta euskararen aldeko hautua egitera, udalak eskaintzen dituen ikastaroetan eta tailerretan.

Udalak martxan duen euskara sustatzeko programaren metodologia

Udalak eskaintzen dituen ikastaroak eskalduntzeko programaren garapenean egun indarra hartzen ari den metodologia Lasarte-Oriako udallean baita Buruntzaldekoetan ere, honakoa da.

Ikastaro batuzetan aldeaz aurretik ezartzen da hizkuntza irizpidea eta horiek euskaraz eskaintzen dira hasieratik. Gainerakoetan, ikasleei galdetu ondoren definitzen da.

Metodologia horri erreparatuta, hiru talde egin dira:

- A taldea. Partaide guztiak edo ia guztiak ulertzen dute euskara. Ondorioz,

ikastaroa euskaraz edo nagusiki euskaraz emango da.

- B taldea. Partaideen erdiak baino gehiago ulertzen dute euskara. Ondorioz,

euskara. Beraz, ikastaroa ia erabat euskaraz emango da. Euskaraz ulertzeko zailtasuna duenari azalpenak gaitzellaniz emango zaizkio.

- C taldea. Partaideen erdiak baino gutxiago ulertzen du euskara. Gauzak horrela, ikastaroa nagusiki gaztelaniaz emango bada ere, euskarari sarbidea emango zaio agurrean, animozko hitzetan, etab.

A, B edo C talde modura identifikatu ondoren, horeen arabera ikastaroa tratamendua jarraituko da ikastaro edo tailerretan.



Udalaren ikastaroekin bidea **euskaraz** egin



LASARTE-ORIA
UDALA - AYUNTAMIENTO



- ▶ Aldez aurretik ikastaroa euskaraz izango dela definitzen denean...
Ikastaroa **EUSKARAZ EMANGO DA**.
- ▶ **%75-100**: partaide guztiek edo ia guztiek ulertzen badute euskara...
Ikastaroa **EUSKARAZ EDO NAGUSIKI EUSKARAZ EMANGO DA**.
- ▶ **%50-75**: partaideen erdiek baino gehiagok ulertzen badute euskara...
Ikastaroa **NAGUSIKI EUSKARAZ EDO BI HIZKUNTZETAN EMANGO DA**.
- ▶ **%<50**: partaideen erdiek baino gutxiagok ulertzen badute euskara...
Ikastaroa **NAGUSIKI GAZTELANIAZ EDO BI HIZKUNTZETAN EMANGO DA**.

LABURRAK

LOKEko gimnastek Eibarren hasi dute lehiaketa denboraldia

Senior A kategorian taldeka bigarren postua eskuratu zuten bost urteain proban. Banakako jardunean berriz, Aizpea Arroyo lehena izan zen urteain lanean eta Garazi Gomez zazpigarren.

Jubenil A mailan taldeka zazpigarren postua eskuratu zuten mazoekin. "Taldea honek asko eta gogor entrenatu beharko du, euren lehenengo urtea baita erreminta honekin lan egiten dutela", adierazi du Maite Rueda prestatzaileak.

Jubenil B taldekoen artean, emaitzarik aipagarriena Ainara Apeztegiak lortu zuen, 5. egin zuen mazoekin.

Kadeteetan, A kategorian, Naroa Sanzek 10. egin zuen sokekin. B taldeak ezin izan zuen larunbatean lehiatu gimnasta bat gaixo jarri zelako eta ez daukatelako ordezkorik.

LOKEko entrenatzaileak gustura ziren herriko neskek lehen txapelketan eskuraturako emaitzekin, batez ere urteainekin osatutako lanean Aizpea Arroyok lortutako lehen postuarekin eta Senior A taldearen bigarrenarekin.

LOKEren bi urte eta bi brontze juniorren Gipuzkoako judo txapelketan

LOKEko judokak lan handia egin zuten Heranin jokatu zen Gipuzkoako junior txapelketan. Josu Olmos bikain aritu zen eta urtea jantzi zuen 60 kiloz azpikoetan bere bi konbateak ipon bidez irabazi zituen. Fermin Baldak 81 kiloz azpikoetan hiruro borrokaldirain gailendu zen ipon bidez. Honek ere urrezko domina kolorkatu zuen.

Brontzeak berriz, Ion Arroyok eta Asier Zubizarretak jantzi zituzten. Arroyok bi galdu arren, borrokaldira on bat irabaztearekin nahikoa izan zuen brontzezko domina eskuratzeko. Asier Zubizarreta maila onean itzuli zen tamiatarra, 66 kiloz azpiko kategorian. Lehen konbatea nagusitasunez irabazi zuen, finalurteko galdu egin zuen eta brontzeagaito borrokaldira ipon batekin irabazi zuen. Dominaren bat lortu zuen lau judoka horiek gailu, Iñigo Matxain eta Haritz Urdangarin ere Heranin izan ziren parte hartzen.

Gipuzkoako txapelketako jardun onak sari bikoitza izan du gainera, Josu Olmos, Fermin Baldak, Asier Zubizarreta eta Ion Arroyo Euskadiko junior txapelketarako sailkatu baitira.



LOKE

IGERIKETA

Iñigo Ibarburu Erkidego Arteko Espainiako txapelketan

Lehiaketa duina osatu zuen txapelketa garrantzitsuei begira

Pasa den asteburuan Iñigo Ibarburu Buruntzaldea IKTKo taldeko de Castelloneko "La Salera" igerilekuan izan zen Euskal Selektioarekin Erkidego Arteko Espainiako Txapelketan parte hartzen.

TXINTXARRI

Junior mailako Espainiako Txapelketa prestatzen ari denez, ez da sasoi beteian joan eta frogaz batzuk osatzea asko kostatu zaio. Hala ere, bere lana erabakigarria izan da Euskadik mutiletan lortu duen seigarren posturako eta sailkapen orokorrean zazpigarren egiteko.

Banakako frogetan, 100 tximeleta, 200 tximeleta eta 200 estiloetan aritu zen Ibarburu. 100 tximeleta 57'26 egin zuen hirugarren postuan sailkatuz. Bere marka onenetik segunduz eskasera maila ona eman zuen Buruntzaldea IKTKo mutilak, nahiz eta herritarra ez zegoen guztiz gustura egindakoekin.

200 tximeleta 2'14"33 egin zuen eta bederatzigarren izan zen. Azkenik, 200 estiloetan aurrez zuen marka berrituko gai izan zen 2'15"66 eginaz eta Euskadirentzat zortzigarren postua lortuz.

Errelebu-probaten ere erabakigarria izan zen Euskadiko Selektioarentzat bere txanda. 4x200 libren, 4x100 libren eta 4x100 estiloak errelebu-



BURUNTZALDEA IKT

Iñigo Ibarburu ez zen guztiz asebetuta itzuli Castellonetik, baina helburua Cadiz da.

tan parte hartu zuen Iñigo Ibarburuk.

"Txapelketa garrantzitsuei begira, emaitza normalak eta onak dira Iñigorenak. Momentuko entrenamenduen nekeak frogak nahi baino gogorragoak bilakatuzen baditu ere, maila onean aritu da Iñigo eta pixkanaka datozten asteetan freskotasuna irabazten joan ahala, Cadiz-en, Espainiako Txapelketan bere markak hausteko gai izatea espero dugu", adierazi du Borja Apeztegiaren entrenatzaileak.

Bitartean, datozen bi asteburuetan Gipuzkoako zein Euskal Herriko txapelketak izango ditu. "Plangintzaren ondorioak" ikusten hasteko lehiaketak izango dira Apeztegiaren esanetan eta Cadizeko zitarako "primerako prestakuntza" ere bai.

Neguko txapelketa

Asteburu honetan Neguko Gipuzkoako Txapelketa jokatu da Tolosan. Bertan talde-

ko infantil, junior eta absolutuak izango dira lehiak. Txapelketa larunbata goizean eta igandean goiz eta arratsaldean jokatu da. Goizeko jardunaldiak 9:30etan hasiko dira eta arratsaldeko 17:00etan.

Masterrek eta infantilak

Buruntzaldea IKTKo master taldeak Zarautzeko V Open Saria izango du larunbatean. Txapelketa Arizabalde Kirolegian izango da, goiz eta arratsaldeko jardunaldietan. Goizeko 10:00etan hasiko da eta arratsaldeko 16:00etan.

Gipuzkoako Txapelketarako gutxieneok ez dituzten infantilak berriz, Neguko VII Gipuzkoako Saria izango du larunbatean. Txapelketa Legazpin izango da goiz eta arratsaldean. Goizeko jardunaldia 10:00etan hasiko da eta arratsaldeko 17:00etan. Igeriarietan ban bazkaldiko dute eta ez dute horretarako ezer eraman behar.

KIROL AGENDA

FUTBOLA

Larunbata 7

Ugale-Ventas, Irun 9:15ean
Marino - Ostarad SKT
Infantil Oheozko Maika, Kapa
3. jardunaldia.

Michelin, 12:00ean
Ostarad SKT - Gernika
Kadeteen Euskal Liga,
21. jardunaldia.

Michelin, 13:45ean
Ostarad SKT - Bergara
Infantil Txikiak, Erremendua
9. jardunaldia.

Michelin, 15:15ean
Ostarad SKT - Kostask B
Kadeteak I. maila, Kapa
5. jardunaldia.

Ubitarte, Andoain 15:30ean
Euskalduna B - Ostarad SKT
Jubenilen I. maila,
Igoera Fasa,
6. jardunaldia.

Matixogotegi, Donostia 15:30ean
Kostask - Ostarad SKT
Jubenilen Oheozko Maika,
19. jardunaldia.

Agorrosin, Bergara 16:00etan
Bergara - Ostarad SKT
Oheozko Erregional Maika,
21. jardunaldia.

Michelin, 17:00etan
Texas Lasartearra - Urola
I. Erregionala,
Kapa
21. jardunaldia.

Igandea 8
Donostia, Matixogotegi, 13:30etan
Internacional - Texas Lasartearra
Jubenilen I. maila, Kapa
5. jardunaldia.

ARETO-FUTBOLA

Ostirala 6
Michelingi kirol-gunea, 19:45ean
Buenexea - Inausat
Michelingi kirol-gunea, 20:45ean
Viña del Mar - Txoko Taberna
Eskolapiok, Tolosa, 20:30etan
Hirukide Tolosa - ISU Leihok
Gipuzkoako I. maila,
16. jardunaldia.

Larunbata 31
Michelingi kirol-gunea, 9:15ean
Trumoi - Indaux

Michelingi kirol-gunea, 10:15ean
Ilargi - Bar Also
Michelingi kirol-gunea, 11:15ean
Bar El Punto - Izkilña Taberna
Michelingi kirol-gunea, 12:15ean
Txindoki - Urdaneta HK
Udai-kirolegia, 18:00ean
Ostarad Antonio Aroztegia -
Elorrioko Buzantza KE
3. Maila Nazionala,
16. jardunaldia.

Igandea 1
Kirolegia, 12:45ean
Cecilia Frua Denda Kaber Lasarte
Ostarad - Anoeta FK
Gipuzkoako Liga,
3. maila,
16. jardunaldia.

ERRUGBIA

Ostirala 6

Michelin 18:30ean
Babauzo Zarautz Beltzak taldearen
entrenamendua. Sub 12 eta sub 10
taldeko mutiloekin burutuko dute
zelai. Lasarte-Oria eta errugbia
gerturazelo asmoarekin prestatu dute
saioa. Osteen talde osarekin batera
ikusko dute Sei Nazioen torneo
historiko irekiko duen Gales eta
Ingliziarren arteko neurteak. Gure
Etxean, afixari arri baten ligaturtz.

SASKIBALOA

Igandea 8

Udai kirolegia, 11:00etan
Ostarad SKT - Ganbara
3. Probazioa, Senior mailak,
14. jardunaldia.

Agenda

Gaur, Jalgi Kafe Antzokia 22:30ean



Azken bertso desafioa

Erral Bertso eskolak antolatutako azken bertso desafioa izango da. Kasu honetan Azpeitia, Errezil eta Azkoitiko Erriarraitz Bertso-eskolako kideen aurka ariko dira herrikoak. Orain arte Lasarte-Oñako bertsolari taldeak jokatutako hiru desafiostatik, hirurak irabazi ditu Hernani, Tolosaldea eta Andoainen aurka. Gaurkoan, Ane Labaka, Zigor Iriondo eta Asier Azpiroz ariuko dira Eneritz Artetxe, Jon Gurrutxaga eta Haritz Garmendiarren aurka. Imanol Lizardi izango da gai jartzailea. Sarrera doan.

Musika

MANUEL LEKUONA KULTUR-ETXEA
Osteguna 12, 19:00etan
Udal Musika Eskolako ikasleen Inauteriko ohiko kontzertua izango da. Sarrera irekia.

BRIGITARREN KOMENTUA

Ostirala 13, 19:30ean
Arimaz Kamara Orkestraren kontzertua Danok Kide elkartearen X. Musika Topaketan baitan. Tolosako taldearentzat ez da herrian eskaintzen duen lehenengo emanaldia izango. Sarrera doan.

Andoain

Musika

BASTERON
Larunbata, 20:00etan
Demodé Quartet-ekoak ziur daude Countrya, Jazz, Sanba, Bollybodo Poparen jatorria Euskal Herrian dagoela. Abesti eta 'EPA!' showaren bidez Benito Lertxundi, Ken 7 eta beste taldeen kantak abestuko dituzte beraien estilo propioan. Sarrera 10 euro.

Lasarte-Oria

Zinema

MANUEL LEKUONA KULTUR-ETXEA
Gaur, 22:00etan
'Birdman' filma Okendok antolatutako zine forumean. Alejandro Iñarritu zuzendariaren azken lan honek bederazi izendapen jaso ditu Oscar sarietarako. Sarrera 5,50 euro.

MANUEL LEKUONA KULTUR-ETXEA
Larunbata, 20:00etan
'Birdman' filma helduen zinema atalean. Sarrera 5,50 euro.

MANUEL LEKUONA KULTUR-ETXEA
Igandea, 17:00etan
'Stand by Me Doraeon' filma ikusi

ahal izango da haurren zinema atalean. Emanaldia Euskaraz. Sarrera 3,80 euro.

MANUEL LEKUONA KULTUR-ETXEA
Igandea, 19:30ean
'Birdman' filma helduen zinema atalean. Sarrera 5,50 euro.

MANUEL LEKUONA KULTUR-ETXEA
Astelehena 9, 19:30ean
Danok Kidek antolatutako Itsapesko zinemazikloaren hasiera. Honetan 'Erraldoien gaua' 5 minutuko bideoa ikusi ahal izango da. Ondoren, 'Malako itsasoan' 3 minutuko lana, 'Algodre' 6 minutuko laburra eta azkenik, 'Bali' izeneko lanaz gozatu ahal izango dute bertaratutakoek. 52 minutuko iraupena du azken

honek eta gaztelez ikusi ahal izango da. Sarrera doan da. Hurrengo saioak ostailaren 16an eta 23an izango dira.

Diaporama

HERRIKO KALESTAN
Asteazkena 11, 21:30ean
Josu Agirreze herritarrek 'Atlas ezeguna 10 egunetan' irudi saioa eskainiko du otsailerako Itakunek antolatutako diaporama saioen baitan. Sarrera doan da eta jateko zerbitzu izango da antolatzaileen kontu. Bertaratutakoekin saioaldierako tarjeta zabalduko da herritarren azalpenaren ostean. Otsaileko asteazken guztietan izango dira bidaien inguruko saioak.

Astigarraga

Zinea

KULTUR-ETXEAN
Larunbata, 17:00etan
'Azi Txikia' haurrentzako filma. Pirata arriskutsu batzuk Galizian Tui hiri txikian lapurretara egin dute, baina Bideo Dubidoz bederati urteko haurra, magia harrigarriaz armaturik, gudari gaiztoak ikararuta ihes egitea lortzen du. Sarrera 2 euro.

Herritarren txokoa

Korrikaren materiala salgai
Martxoaren 19tik 29ra egingo da Korrika eta martxoaren 22an pasako da Lasarte-Oriatik. Urepelen hasi eta Bilbon amaituko da Euskal Herri osoa zeharkatuko duen ibilbidea. Dagoeneko salgai dago materiala herrian, Geltoki Kaleko AEKren Muntteri euskaltegian. Neskentzat eta mutilentzat kamisetak, txanoak, jertseak, buffak eta poloak bertan daudela jakinarazi dute AEK-ko kideek. Herritarrek euskaltegitik pasa daitezke materiala ikusi eta erostera, goiz eta arratsaldeko ordutegian.

zkena 11, biak Villa Mirentxuko trinketean egingo dira 20:00etatik 21:00etarako ordutegian. Antolatzaile taldeak, hauetan parte hartzera deitzen dituzte herritarrek.

Euskal Inauteria entseguak
Ostailaren 14an eta 15ean izango dira Inauteriak gurean. Igandean, ohi bezala, Euskal Inauterien txanda izango da. Aurten desfile bakarra egingo da, arratsaldekoa, eta honetan parte-hartzea irekia da. Dantzak ikasteko bi saio izango dira datorren astean. Astelehena 9 eta astea-

Sarean

Euskal Herriko sozioekonomia ataria



Beha.eus Euskal Herri osoko aktualitate sozioekonomikoa bildu nahi duen ataria da. Gaindegia sartuta da, Euskal Herriko ekonomia eta gizarte garapenerako behategiak. Euskal Herriari buruzko informazioa, gogoeta eta baliabideak bildu eta eskaintzeko gunea izan nahi du, ondorengo esparruetan batez ere: gizarteak, ekonomia eta lurraldeasuna. Gure honek Euskal Herriaren aktualitateari nahiz mundu mailakoari Herri ikuspegi begiratuak dio. Batek, Gaindegia Euskal Herriaren garapenerako interesgarritzat jotzen dituen albisteak bilduko ditu eta, bestetik, eduki propioak ere landuko ditu: elkarrizketak, erreportajeak eta gogoetak.

Zuen oharrak jarri, kezak adierazi edo eskutitzak argitaratzeko:

Geltoki kalea, 4 943 366858 txintxarri@txintxarri.info

Herritarrak ezta ezta sano Santa Agedan

Herriko bi ikastetxeek eta zenbait elkartetan oles egin zuten asteazkenean

Urteroko ohiturari eutsiz, herriko bi ikastetxeak eta hainbat talde atara ziren kantuan asteazkenean, Lasarte-Oriako kaleak girotuz. Eguraldi hotza ez zen traba izan Sasoe eta Landaberriko ikasleentzat, ezta Amalur, Erketz, Xumela eta Earra! bertso eskolako kideentzat ere. Egun osoan zehar entzun ahal izan ziren koplak eta makil hotsak, goizean zein arratsaldean aritu baitziren oles egiten. Eguna bukatzeko, Brigitarren komentura hurbildu ziren Xumela eta Earra!-ko kideak.

TXINTXARRI

Ikastetxeetako haurrak izan ziren makilak astintzen lehenengoak. Bi eskoletako ikasleak aritu ziren koplak goizean zehar.

Goizean, Landaberriko azokara gerturatu ziren. Sasoe eta Zumaburuko eraikineri jaitzi ziren ere txikienei kantak eskaintzera.

Arratsaldean berriaz, herriko talde ezberdinen txanda izan zen. Zabaletako bizilagunak inguruko baserrietara abiatu ziren 18:00ak aldera. Erketzekoak, Zumaburuko eskolatik atara ziren

kantari eta Earra! bertso eskolako kideak Xumelakoekin batera erdigunetik ibili ziren, Brigitarren komentuan egunari amaiera eman aurretik. Amalur trikitixa eta pandero eskolakoak ere kalez kale ibili ziren, giroa alaitzen.

Aurten ere segida eman zaio ohitura zahar horri gure herrian eta hotzari aurre eginez, herriko txoko guztietara eramandutako koplak.

Egunak bildutako irudiak <http://txintxarri.eus/galeria/663/> estekan ikus daitezke, eta bideoak berriaz, hemen: <http://txintxarri.eus/bideoak/184/>.



Herria koloreztatzeko mural lehiaketa

Lasarte-Oriako hirugarren sektorean indartzeko helburuarekin "Biziberritzin" proiektua jarri zuen martxan Udalak. Ekimen honek hiru arlo ezberdin jorratzen ditu. Lehenengo funtzionamenduan dagoen Tratu On Bat webgunea, herriko merkataria, ostalariei eta zerbitzuentzako erakusle digital bat; bigarrena, udalerriko lokal komertzial hutsak berraktibatuzeko ekimena eta azkenik Guztion Lasarte-Oria egitasmo artistikoa.

"Proiektu berritzaile honen helburua degradatutako dauden espazio eta hometan esku-hartze artistikoak eginez udalerriko irudia hobetzea da" azaldu dute udaletik. "Modu horretan, herritarrak udalerritik ibiltzeko joera sustatu eta herriko komertzioetan positiboki eragin dezaten nahi dugu. Horretarako, proiektuaren lehenengo fase honetan mural lehiaketa ireki bat antolatu da eta erdigunean dauden 5 horma txukundu eta margotuko dituzte lehiaketa irabazleek".

Azken hilabeteetan, herriko hainbat artistekin eta Antxota artista elkartearekin biltzen aritu da Udala eta guztien artean mural lehiaketa egiteko oinarriak adostu dituzte. Diziplina askotarikoak izan dai-

tezke lanak: pintura, collage, graffiti etab. Eta margo guzti hauek jorratu beharko duten gaia "gure udalerrinari ezaugarri eta aberastasun handienetarikoa bat izango da, hain zuzen ere aniztasuna".

Lehiaketa dagoenean martxan dago, astelehenean argitaratu baitzen Gipuzkoako aldiakirio ofizialean eta hila-bete honetan zehar proposamenak entregatzeko aukera izango da. Parte hartu nahi dutenek otsailaren 27a baino lehen Udaltekoko erregrazioan utzi beharko dituzte zirriborroak. Lehiaketa irekia denez, bertaratu ezin duenak postaz bidaltzeko aukera ere izango du.

Bost mural, bost sari

Aurkezitako zirriborroen artean, epaimahaiki gehienez ere 5 proposamen hautatuko ditu horretan martxateko. Behin muralak burututa, 1.500 euroko lehenengo sari bat, 1.250 euroko bigarren sari bat, 1.000 euroko hirugarren sari bat eta 300 euroko bi sari (laugarren eta bosgarrenentzat) banatuko ditu.

Horrez gain, "Margoketa eguna" antolatzen ari da Udala herriko artistekin batera. Eta mural lehiaketako hormak margotzeaz gain beste ekimen artistiko, hezitzaile



Asteazken arratsaldean aurkeztu zuten mural lehiaketa udal ordezkariak eta herriko zenbait artistek.

eta kultural batzuek ere izango dira martxoaren 14an. "Udalerriko eta ingurune degradatuetako irudia hobetzeko

batera gure herriaren alderdi artistikoa sustatu nahi dugu".

Udalak interesdunei parte hartzeko gonbitea egiten die.

Oinarriak esteka honetan daude: <https://ss14.gipuzkoa.net/castell/bog/2015/02/02/c1500808.pdf>.

MAITE

ESTETIKAKO ARETOKO
Krisi garaian,
guk ere esfortzua egin nahi izan dugu,
gure prezioz!

Prezio herriak fotodepilazioan
ETORRI eta GALDETU

Uistin Kalea z/g • Tel.: 943 370845 • Lasarte-Oria

Foto depilazioa argi pultsatuarekin

- Era ezberdinetako depilazioak
- Aurpegiko tratamenduak
- Gorputzeko tratamenduak
- Makillajeak
- Beste hainbat zerbitzu